

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak


2023ko urriak 27 · 1287 zenbakia



BATUTAKO ONDDOEKIN OSATUTAKO MAHAI DOTOREA

www.urrategiinteriorismo.com
Elder Arregui 37 Aspeltz Aretx 9

PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BARNE DISEINUA



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

AÚPA EIBAR



Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.es

consultores@gaurve.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2

Tel. 943 20 41 94

Fax. 943 82 00 06

egurenyasociados@gmail.com

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Rosana Aranak 'Respiramos vida' liburua kaleratu du, Pagatxa emakumeen elkartearen hainbat urtetan zehar eman dituen arnasketa ikastaroetako ikaskuntzak jasoz.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Kimikak ezin du natura ordezkatu. Elementu biologikoak fabrikatu ditzakegu, baina DNA pieza txikiak eta proteina bakunak ere, baina bizitza hori baino askoz konplexuagoa da. Denbora ere kontuan izan beharreko faktorea da, molekulak euren artean interaktuatzeko gauza izan behar direlako une zehatz batean. Ez dut uste gizakia inoiz gai izango denik organismo biziak sorrarazteko; ordurako desagertuta egongo gara.

JEAN PIERRE SAUVAGE, Kimika Nobel Saria

Astronauten osasunerako arriskua da eragozpen handiena Martera espedizio bat antolatzerako orduan. Joateak bakarrik 200 eguneko bidaia eskatzen du. Eta gero, espazioan egotearen marka orain berri egin duen Frank Rubio astronautak dioen bezala, bizkarrezurra hazi egin zaio, orain aukietan esertzerakoan igarri duen lez. Espazioan egin dituen 371 egunetan, grabitaterik ezari eta espazioko erradiazioei aurre egin behar izan zien. Arriskuen artean daude gihar-masa eta hezur-dentsitatea galtzea, ikusmen-arazoak, buruko minak, hidrozefalia, zorabioak, arterien zahartzea, zaporea galtzea, ictusa izateko aukera handitzea...

JULIO PASCUAL, Valdecillako neurologoa

ORDU ALDAKETA

Asteburuko zapatutik domekarako (urriak 29) goizaldeko 03:00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02:00etara. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburuko domekak. Neguko ordutegiak martxoaren 30era arte iraungo du, udakoa berriro indarrean jarri arte.



Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORLATUA EGON → Eguraldia lainotuta egon, hodeiturik egon. “Oriatua dagok eta ezingo gaittuk Kalamuara juan”.

ORITZ → Behiek eta beste animalia askok kumea euki eta lehelengo egunetan eukitzen daben esne lodi odoltsua. Gaztelerazko ‘calostro’. “Behixan oritza askok gustora hartzen dabe”.

1971-72

Eibarko Klub Deportiboaren irteerako prest

Datorren urtean, 1924ko urtar-
rilararen 30ean 100 urte beteko
dituen Eibarko Klub Sporti-
boak horrelako hamaika mendi-
irteera antolatu ditu. Plazaola-
ren argazki honetan oso ondo
ikusten denez, mendira joateko
arropak, motxilak... izugarri
aldatu dira ordutik hona.



Farmaziak

BARIXAKUA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 30
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 31
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 1
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 3
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Api Urresti Aierdi**. 88 urte. 2023-10-16.
- **Aquilino Gamiz Fdez. de Garceo**. 92 urte. 2023-10-18.
- **Maria Angeles Agiriano Beitia**. 68 urte. 2023-10-18.
- **Maria Nieves Alcoba Pedrajas**. 72 urte. 2023-10-18.
- **Elena Olabe Plagaro**. 68 urte. 2023-10-18.
- **Pedro Moreno Ruiz**. 92 urte. 2023-10-18.
- **Mario Ortega Alonso**. 78 urte. 2023-10-19.
- **Cristino Cejudo Huerta**. 92 urte. 2023-10-19.
- **Manuela Benito Bernini**. 89 urte. 2023-10-20.
- **Antonio Vispo Vila**. 91 urte. 2023-10-21.
- **Maria Teresa Unzueta Otxotorena**. 97 urte. 2023-10-22.
- **Javier Iturralde Albizu**. 90 urte. 2023-10-23.
- **Urtzi Abantzabalegi Arantzabal**. 46 urte. 2023-10-23.

Jaiotakoak

- **Zineoina Fizou**. 2023-10-14.



Eibarko Artisten Elkartekoak Bartzelonan egon dira

Gaudiren Familia Sakratuaren Tenplua atzean dutela, pozarren egin zuten talde-argazkia Bartzelonara bidaia egin zuten eibartar hauek. Eibarko Artisten Elkarteak antolatutako irteeran Kataluniako hiriburuko tokirik esanguratsuenak bisitatu zituzten.



Egun biribila pasatu zuten 1953. urtean jaiotakoek

Aurreko asteburuan, zapatuan elkartu ziren argazkian ikusten dituzuen andra-gizonak, elkarrekin bazkaldu eta eguna jai-giroan pasatzeko eta, normala den moduan, ondo baino hobeto ibili ziren.



Bihartik hasita Ipuruako kiroldegia 09:00etan zabaldu eta 20:00etan itxiko dute zapatuetan

Udaleko kirol saileko zuzendari-tzatik jakinarazi dutenez, bihartik aurrera Ipuruako kiroldegiaren zapatuetako ordutegia luzatu egingo da eta, maiatzeko azken aste-burura arte (hori barne), goizeko 09:00etan zabaldu eta 20:00etan itxiko dute. Horrela, instalazioak eguerdian ere zabalik egongo dira (igerilekua izan ezik, baldin eta igeriketako txapelketarik ez badago). Argitu dutenez, denboraldi osoan zehar, klubon partidu eta txapelketa guztiak ordutegi horren barruan gauzatuko dira.

Orientatzaile berria dago Eibar Mogidu zerbitzuan

Eibar Mogidu jarduera fisikorako orientazio-zerbitzuak orientatzaile berria dauka: Gorputz-heziketan lizentziatua den Kimi Lopez de Arechaga. Eibartarrei bizitza aktiboagoa eta osasungarriagoa izaten laguntzea helburu duen zerbitzua 2018ko azaroaz geroztik dago martxan, eta azken bost urteetan Josetxo Varela izan da zerbitzu horretako arduraduna. Eman dituzten datuen arabera, zerbitzua ematen hasi zirenetik 225 pertsona baino gehiago igaro dira bertatik, medikuak bideratuta.



LAB-eko ordezkariak Greba Feminista Orokorreko lanean hasi dira

LAB sindikatuak bat egin du Mugimendu Feministak azaroaren 30erako deitu duen Greba Feminista Orokorrekin, eta hasi dira prestaketa-lanetan: “Debaldea eskualdeko delegatuen batzarra burutu genuen aurreko astean. Bertan sektore ezberdinetako delegatuekin grebaren nondik norakoak landu ditugu, eta Zaintza Sistema publiko komunitarioa jarri dugu helburu moduan”. LABen ustez “zaintza krisia gero eta nabariagoa da, eta krisi honen arrazoi nagusi eta bakarra ez da bilakera demografikoa, edo gizartearen zahartzea, hau sinestarazi nahi badigute ere. Ez dugu ontzat ematen zaintza eredu hau, bidegabeta eta sostengaezina baita”. Zaintza lanak berrantolatzea eta modu orekatuagoan banatzea “premiatzkoa” dela diote: “Hain zuzen ere, hori da LABek defendatzen duen zaintza sistema publiko komunitarioaren helburua”. Langile guztiak deitu ditu sindikatuak, greba batzorde, lan zentroetako asanblada eta Greba Feminista Orokorrean parte hartzera.

Ehundaka lagun irten ziren kalera Palestinako herriari babesa azaltzeko

Zapatuan ehundaka lagun irten ziren kalera Eibarren Palestinari babesa emateko. Gazte Safak egin zuen deialdia eta Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak babestu zuen, eta elkarte bien ordezkariak egin zuten berba Untzagan, manifestazioa hasi baino lehen.



Eibarko euskalgintzak bat egin du azaroaren 4ko manifestazioarekin

Azken hilabeteetan epaitegietatik euskararen aurka ateratzen ari den ebazpen-sorta salatzeko manifestazioa deitu du Euskalgintzaren Kontseiluak, azaroaren 4rako Bilbon. Eibarko euskalgintzaren mahaia osatzen duten talde, elkarte eta eragileek ere bat egin dute deialdiarekin eta, horrekin batera, “euskararen eta herritarren hizkuntza-eskubideen alde dauden eibartarrei manifestazioan parte har dezaten” dei egin die. Manifestazioa 17:00etan hasiko da Euskalduna inguruan





“Komunikazioa eta gardentasuna administrazio publikoetan” jardunaldia antolatu dute azaroaren 23rako

Udalak “Komunikazioa eta Gardentasuna administrazio publikoetan” izeneko jardunaldia antolatu du bigarren bezala, “administrazio publikoek komunikazioaren eta gardentasunaren alorrean egin duten lana ezagutzera eman eta era guztietako erakunde publikoentzat soluzioak proposatzeko” asmoz. Azaroaren 23an izango da, Coliseon, 09:00etatik 13:45era. Sei hitzaldi eta mahai-inguru bat egingo dituzte, alorrean adituak diren hainbat profesionalen eskutik: Oscar Cortes Abad (Madrilgo Udaleko komunikazio digitaleko koordinatzailea eta Juan Carlos Erregea Unibertsitateko irakaslea), Malen Illarramendi Beitia eta Jone Amonarriz Zubeldia (AZK komunikazio-agentzia), Arantxa Hernandez Lopez (web-orrien irisgarritasunean aditua), Iñaki Gorostiza Esquerdeiro (LIN3S-ko Data Analytics-eko bazkide eta zuzendaria), Goizeder Manotas Rueda (Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuko aholkularia) eta

Haritz Ugarte Aizpuru (Berrikuntza eta Eraldaketa Zerbitzuko burua), eta Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino (Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Publikoko Proiektuen arduradun eta Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kidea).

Jardunaldian, besteak beste, honako gai hauek landuko dira: komunikazio digitala, krisi-egoeren komunikazioa, marka-irudia, web-guneen irisgarritasuna, analitika digitala, gobernu ona, gardentasun aktibo eta pasiboa, eta salaketa-kanalak. Ekitaldia sektore publikoko komunikazio-arloko profesionaleri eta, oro har, administrazio publikoko langileei dago zuzendua, “bai eta komunikazio instituzionalean eta marketingean aditu direnei, komunikazio, kazetaritza edo antzeko graduako ikasleei, edo gaian interesa duten komunikabideei ere”. Entzule guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko, aldibereko itzulpen zerbitzua eskainiko da aipatutako jardunaldian.

Emakumeen eta gizonen arteko harreman parekideen inguruko hitzaldiak azaroaren 8an

Udalak “Emakumeen eta gizonen arteko harreman parekideak” izenburuari jarraitzen dioten hitzaldiak antolatu ditu azaroaren 8rako. Antolatzaileen berbetan, “emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza izateko duten eskubidea aitortzea da saio hauen helburua”. Hitzaldiak bi espazio ezberdinetan izango dira, “jendeak askatasun osoz parte har dezan, eta gune seguruak sortzeko”. Asmo horrekin, taldekideen sexuaren arabera bereiziko dituzte: emakumeek osatutako gunea Andretxean (Biharginak gelan) egongo da, 18:00etatik 20:00etara. Eta gizonezkoen gunea, berriz, Portaleko ikastaro gelan, 17:30etik 19:30era. Izen-ematea doakoa da (Udalaren webgunean edo karteletako QR-aren bidez).



Gutxienez hiru urtez itxita jarraituko du elizak

Pedro Laskurain San Andreseko parrokoak esan duenez, gutxienez hiru urte beharko dituzte eliza berri zabaltzeko: “Ez dago estimazio konkreturik, bakarrik dakigu hiru urte baino gehiago beharko ditugula”. Eliza gauzatze-fasean dago orain eta egitura aztertzen dihardute sentsoreen bitartez.



Eibarko emakume baserritarrak ardatz dituen saio irekia

Entreamigos-Lagun Artean erakundeak, Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin elkarlanean, sormen kolektiborako saio irekia antolatu du astelehenerako, Artean-Ix Ikasgune Feministaren baitan. “Eibarko emakumeak lurraren zaintzan. Alternatibak bilatzeko saioa” Andretxean izango da, 18:00etatik 20:00etara, eta Eibarko bi emakume baserritar egongo dira bertan: Olatz Alberdi Oregi (Loixola baserria) eta Naroa Ariznabarreta Ibarluzea (Irei baserria). Arduradunen berbetan “lan eta esperientziaren bitartez, haien egoera ezagutuko dugu. Gainera, elikadura burujabetzaren inguruan eta lurraren zaintzan zelako alternatibak dauden hausnartuko dugu”.



Esperientzia Eskolaren 19. promozioko ikasleak klasera joaten hasi dira

Armeria Eskolak Ikasten-en Esperientzia Eskolaren 19. promozioko ikasleak jaso zituen aurreko astean, eguen goizean, horrela kurso berriari hasiera emanez. Aurten, Ondarroako, Elgoibarko, Ermuko eta, batez ere, Eibarko 19 emakume eta 5 gizonek hartuko dute parte. Horrela, urte hauetan 404 lagun pasa dira Esperientzia Eskolatik. Ikasturtean zehar askotariko gaiak jorratzen dira: ko-

munikazio-trebetasunak, osasun fisikoari eusteko eta hobetzeko ezagutzak, psikologia, literatura, kulturartekotasuna, zuzenbidea, sexualitatea, filosofia, nutrizioa, historia, artea, musika, parte-hartzea... Gainera, ikasleek proiektu sozial bat diseinatu eta garatzea da Eskolaren zati garrantzitsu bat. Eta, horrez gain, kultur jarduerak (ibilaldiak, bisita gidatuak...) ere egiten dituzte.



URTZI
Abantzabalegi Arantzabal

Beti alai, danerako prest;
horrela gogoratuko zaitugu.
Zure familia maitasunez
zainduko dugu.

*J.A. Mogel Ikastolako guraso,
ikasle eta langile guztiak*



Jardunaldi Mikologikoen 23. edizioak hartuko du asteburua

Heldu da udazkenak gurean eskaintzen dizkigun asteburu berezi horietako bat. Ikusi, usaindu, dastatu... eta ikasteko ere hainbat aukera eskaintzen dizkigun onddoen munduan sartzeko unea izango dugu edizio berri honetan ere, Deporrekoen irteera aprobetxatuz.



Eibarko Klub Deportiboko Mendi Taldeak urtero antolatzen duen ekitaldi horrek oraingoan “aldaketa txiki bat” izango du, azken urteotan ohikoa bihurtu den perretxikoen inguruko hitzaldia barixakuan izan beharrean astelehenera pasatu dute-eta. Jardunaldiak, horrela, hitzaldiarekin hasi beharrean berarekin amaituko dira. Zapatuko eta domekako ekitaldiek, bestalde, urterokoari jarraituko diete: “Hori bai, domeka eguerdiko perretxiko erakusketa eta dastatzea T. Etxebarria kaletik Errebal Plazara pasatuko da; gauza bera zapatuko perretxikoen sailkatzearekin”.

Zapatuko jarduna goiz-goizetik hasiko da, perretxikoak biltzeko mendi-irteerarekin. “08:15ean irteno du autobusak Ego-Gainetik. Eskoletako irteera hori Arabaruntz abiatuko da eta guraso eta haurrak Marietan ibiliko dira, beti ere arauak errespetatuz perretxikoak

Domeka eguerdiko perretxiko erakusketa eta dastaketa Errebal Plazan egingo da



nola eta zenbat biltzeko orduan”. Arratsaldean perretxiko aukeraketa eta sailketa egingo da Errebal Plazan, 16:00etan hasi eta 19:00ak bueltan amaitzeko: “Tarte horretan, Aranzadikoak gurekin izango direla aprobetxatuz, norbaitek zalantzarik argitzea nahi badu etor daiteke guregana”.

Aranzadi Zientzia Elkartekoe-kin egindako sailkapen horren erakusketa egingo da etzi, 10:30etik 14:00etara, Errebal Plazan. Bertan produktu mikologikoak egongo dira salgai, “perretxikoak dastatzeko aukera izateko”. Astelehenean, azkenik, perretxikoen inguruko hitzaldi dibulgatzailea eskainiko dute Eibarko Klub Deportiboan, 19:00etatik aurrera. Aranzadiko Josian Bereziartuak “*El maravilloso mundo de los hongos*” izenburutzat duena aurkeztuko du eta “publiko orokorrari zuzenduta dago”. Aldamenean duzue berarekin izandako solasaldiaren tarte.

“Onddoen mundua oso aberatsa da, mota gehienak ez ditugu ezagutzen”

JOSIAN BEREZIARTUA • Gizarte-hezitzailea

Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikologia saileko kidea 1994tik, gaur egun sail horretako idazkaria da. 2021ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Flora eta Fauna sailean hasi zen lanean, basozain.

Nondik nora joango da hitzaldia?

Onddoaren mundua bitan banatuko dut: makroskopikoak eta mikroskopikoak. Eta, ondoren, lau ataletan zentratuko naiz: a) nomenklaturan, zeren arabera eta zergatik deitzen diren horrela; b) adibideen bidetik, formei erreparatuko diegu, non eta zelan irteten diren, euren sinbiosi eta parasitismoa aztertuko dugu, koloreak eta usaiak baztertu gabe; c) likenak eta eurretik sortutako onddoak; eta d) mehatxatuta dauden espezieak.

Zergatik da miresgarria onddoen mundua?

Hain askotarikoak izate hutsagatik. Askok euren gardasol edo txapel forma besterik ezagutzen ez badute ere, badira bestelako itxurakoak. Habitatzen arabera, ezuste askorekin egin dezakegu topo, onddorik direnik ere zalantzan jartzera. Komeni zaigu begiak zabaltzea.

Zer egiten da desiragarriagoa: batzea edo jatea?

Guztiok hasten gara batzeko jardunetik. Baina gero konbertsioa ematen da gehienetan: jatearena berdina zaizu, atzean dagoenak pizten du arreta. Beste mota batzuren bila abiatzen zara, beste toki batzuk aurkitzen saiatzeaz batera, onddo arraroen bila hasten zara... Prozesua bihurtzen da azkenean.

Aldaketa klimatikoak izan du eragina onddoen mundu horretan?



Jakina, horrek ere hainbat arazo dakarzkigu. Baina kontua ez da espezieak ugaritzen edo gutxiagotzen direla, baizik eta beste klima edo habitat batzuetako espeziekin egiten dugula topo. Gurean gero eta bero handiagoak eta uholdezko euriak jasaten ditugunez, espezie tropikalak ere gerturatu zaizkigu.

Hala ere, gure ingurua aberatsa da onddoetan, ez?

Zalantzarik ez dago. Espezie makroskopikoetan ere, eurretako asko eta asko ez ditugu ikusten, ez gara konturatzeko daudenik ere. Dena dela, klima aldetik oso aberatsa da gurea esparru honetan: zuhaitzekin onddoek bizi duten sinbiosiak asko laguntzen du arlo horretan. Kostaldea ere izatean, dunek-eta halakoek eskaintzen digute aberastasun hori.

Orokorrean hartuta, esango zenueke nahikoa kultura dugula horren inguruan?

Zeinek konparatzen duzun, horren arabera da emaitza. Gaur egun ez dugu goserik pasatzen, gerra ondoren bezala, eta jendea ez dago behartuta batzera jateko. Beste jauzi bat eman da dagoeneko: jendea mendira irteten da arnasa hartzeko batez ere. Azken berrogeita hamar urteotan kultuagoak bihurtu gara, intoxikazioak jaitsi dira, zaletasunak gora egin du, baita erakusketak ere. Estatuan Katalunian eta hemen gaude prestatuen, nahiz eta pozoitze gehienak ere bertan gertatu.

Sagardoa egiteko prozesua ezagutzen

Itzamna akademiako lagunek sagardoa egiteko prozesua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten Mendigoitxi baserrian. Orain dela pare bat asteburu egin zuten ekintza eta han bizi izandakoaren berri eman digute hurrengo lerrootan.

Urtero egiten duten moduan, sagarrak heldutasun puntu gorenera iristen direnean, Mendigoitxi baserriko familia eta laguntzeko prest dauden lagunak biltzen dira sagardoa eskuz egiteko. Prozesu honek, hiru egunetan zehar hedatzen dena, familia osoa inplikatzeko du: sagarrak hautatu eta biltzetik, txikitu eta prentsatzeraino.

Tradizio horren alderdirik nabarmenena artisau-metodoekiko duen erabateko atxikimendua da. Sagarrak eskuz biltzen dira, makineria modernoa erabili gabe. Ondoren, baserrira eramaten dituzte, ia 100 urte duen makina batek birrintzeko. Makina hori motor batek bultzatzen du eta, urte asko dituen arren eta zarata handia ateratzen duen arren, lehen egunean bezala funtzionatzen jarraitzen du.

Txikitzea, ahal den heinean, gauez egiten da, sagar pastak erreposatu eta zukua aska dezan, hurrengo egunera arte, prentsatzeko-prozesua hasten den arte.



Hasteko, sagarrak batu zituzten parte-hartzaileek. ITZAMNA

Prensatzea, sinplea bada ere, prozesu neketsua da, eta bertaratutako guztien lankidetzara eskatzen du. Bertako aitona orain dela ia 100 urte azoka batean erositako torlojuzko prentsa erabiliz, sagar-pasta, eskuzko biradera baten bidez, prentsatu egiten da upelak beteko dituen muztio preziatu ateratzeko.

Ateratzen den muztioa pazientziaz gordetzen da hartitzen den arte, eta botilaratzeko graduazio onena lortzen duen arte, normalean Gabonetako jaien ondoren egiten dena.

Mendigoitxiren familiak gogorarazten digu gero eta modernoagoa eta digitalagoa den mundu honetan sagardo naturala egitea bezalako tradizioak funtsezkoak direla oraindik ere, herentzia kulturalari bizirik eusteko eta lotura komunitarioen sendotasuna sustatzeko.





Ekitaldiz beteta dator Ipuruako Merkatu Plazako agenda

Gogotsu eta ekitaldi mordoarekin hasi dute ikasturtea Ipuruako Merkatu Plazan. Adin guztientzako jarduerak programatu dituzte udazkenerako: abesbatza, akuarela tailerra, filosofia solasaldiak, jazz kontzertuak, ingelesa lantzeko saioak, "Maskulinitatearen erronkak" tailerrak eta erakusketa, Marrazketa Jam Session... Helburua da auzoko merkatu plaza izandako eraikina bizitzaz betetzea eta ahalik eta denbora gehien zabalik egotea.

BIDEOA



Egitarau potente batekin ekin diote ikasturteari Ipuruako Merkatu Plaza Elkartekoek. Urrian urte osorako diren bi ekintza jarri dituzte martxan: alde batetik, Jose Migel Laskurainek zuzentzen duen abesbatza (martitzenetan 19:00etatik 20:00etara) eta, bestetik, filosofia solasaldiak Marisa Iglesiasekin (barixakueta). Bestalde, akuarela hastapen tailerra izan zuten aurreko asteburuan Santi Entrenaren eskutik, eta "horrek ere jarraipena izango du, beste bi saio egingo baitira", azaldu digu Ipuruako Merkatu Plaza Elkarteko Nerea Mendikutek. Pinturarekin jarraituz, Esteban Orozek antolatutako aire zabaleko pintura tailerra egongo da azaroaren 16an. Eguraldi ona egiten badu kanpoan izango da, eta, bestela, erakin barruan, 16:30-18:00 bitartean.

Hiru jazz kontzertu

Musikak ere leku berezia izango du hurrengo asteetan Ipuruako auzoan. Hiru jazz kontzertu egingo dira, asteburu honetan lehenengoa

IPURUAKO MERKATU PLAZA

AZAROA

NOVIEMBRE

- 08** (19:00-19:30) - Abesbatza
- 10** (18:00-19:30) - Filosofia solasaldia
- 12** (12:00-14:00) - Jazz kontzertua
- 16** (16:30-18:00) - Pintura tailerra
- 18** (19:30-21:30) - Abesbatza
- 24** (17:30-19:00) - Jazz kontzertua
- 07/14/21/28** - Jazz kontzertuak
- 26** (12:00-13:30) - Abesbatza

Ipuruako Merkatu Plaza
Auzoaren Jardunak



Aurreko asteburuan akuarela tailerra egon zen Santi Entrenarekin.

>>> Musika, artea, erakusketak, tailerrak... era askotako jarduerak antolatu dituzte udazkenerako

(urriak 29, domeka, 12:00etatik 13:30era), eta azaroaren 12an eta 26an besteak. "Swinga izango da, beraz, dantza egitea gustuko dutenek horretarako aukera paregabea izango dute", dio Nereak.

"Maskulinitatearen erronkak" erakusketa asteburu honetan, eta tailerrak hurrengoan

Bihar eta etzi, hilaren 28 eta 29an "Zer gertatzen zaigu gizonoi? Maskulinitatearen erronkak" erakusketa irekiko da. Jarduera horren ondoren tailer batzuk egingo dira, azaroaren 4an eta 5ean, mutil gaztetxoei zuzenduta. Azaroaren 4koa 6 eta 10 urte bitarteko mutilentzat izango da, eta azaroaren 5koa 11 eta 13 urte bitartekoentzat. Mutilak erreferentziazko gizon heldu batekin batera joan beharko dira (aita, osaba, aitona, familiako laguna...). Tailerrak Piper Txuria elkarterko kideek emango dituzte (informazio gehiago aldameneko elkarrizketan). "Iaz neskekin autodefentsa ikasta-



"Zer gertatzen zaigu gizonoi? Maskulinitatearen erronkak" erakusketa egongo da asteburu honetan.



roa egin genuen, eta aurten Andretxean eman-
go zaio jarraipena. Mutilentzako zerbait egin
behar genuela pentsatu genuen, eta benetan
interesgarriak izango diren tailer hauek anto-
latu ditugu. Oraindik plaza batzuk gelditzen
dira, beraz, parte hartzera animatu nahi ditu-
gu mutil/gizonak. Izena emateko 614 131 174
Whatsappa erabil daiteke", diote antolatzaileek.

Bestalde, azaroaren 18an, Maite Arriagak
antolatutako oso ekitaldi original eta polita
egongo dela azaldu digu Nereak: "Marrazketari
buruzko *Jam Session* saioa ekarriko dugu Mer-
katu Plazara. Marraztea gustuko dutenentzako
izango da. Bi modelo egongo dira (emakume
bat eta gizon bat), eta zuzeneko musika Maite
Arroitajauregi 'Mursego' rekin".

Azaroaren 10ean ingelesezko saio bat egingo
da (guztira bost izango dira, barixakuetan).
Britainiarrek gure futboleko duten eraginari
buruzkoa izango da, Nerea Mendikutek berak
egindako proiektu batean oinarrituta. Gerra
zibilaren ondorioz, 4.000 hurrek emigratu
zuten 1937an Erresuma Batura eta, horietatik
hamabost futbolari profesional bihurtu ziren.
"Saio horietan ondoren egingo den erakuske-
tarako materiala joango gara osatzen", esan
digu Nereak. Adin guztientzako tailerra da,
oso praktikoa, eta ingelesaz gain historia ere
landuko da.

Udalari 3.800 euroko abala ordaindu behar
dio Ipurua Merkatu Plaza Elkarteak laster
sinatuko duten kontzesioarengatik. Dirua
lortzeko txapak saltzen ari dira eta, horrez
gain, serigrafiatutako arropak saltzeko as-
moa daukate. Horregatik, asteburu honetan
hurbiltzen direnei kotoizko arropak eramatea
eskatzon diete (kamisetak, jertseak, haurtxoen
arropa, oihalezko poltsak...). Bildutakoa hu-
rrengo asteburuan serigrafiatutako dute erai-
kinean bertan.

Juan Manuel Feito •
PIPER TXURIAK ELKARTEKO KIDEA

“Gure asmoa da maskulinitatearen erronkak bizipenez eta gazteek ulertzeko moduan azaltzea”

**“Maskulinitatearen erronkak” tailerra es-
kainiko du Piper Txuriak elkarteak azaroa-
ren 4an eta 5ean Ipuruako Merkatu Pla-
zan. Zein da zuen elkartearen zeregina?**

Piper Txuriak 2008an sortu zen gizonen
osatutako talde gisa, eta bi urte geroago
legezko elkarte bihurtu zen gizarteak es-
katzen zizkigun jardueren eskaera gero eta
handiagoari erantzun ahal izateko, hasiera



batean Bilbo inguruan. Maskulinitateak eta gizarte eta kultura
honetan gizon izateak zer esan nahi duen eta ze ondorio dituen
hausnartzeko espazioa eskaintzen die kideei. Hori ahalbidetzeko,
adiskidetasunean, elkarrekiko laguntzan eta errespetuan
oinarritutako espazioa sortu dugu, eta horrela laguntzen eta
inspiratzen gara. Bestalde, gizarteari hezkuntza-jarduerak eta
bestelako sentsibilizazio- eta kontzientziazio-baliabideak es-
kaintzen dizkio, guztiak maskulinitateari eta gizonen buruzko
uste tradizional patriarkalak eraldatzeko. Eta, kontzientzia berri
horretatik abiatuta, gure arteko harremanak patriarkatutik aske
egon daitezen jardutea, hau da, sexismorik, desberdintasunik,
indarkeriarik eta menderatzerik gabe. Hori da gure helburua.

**Zer da Eibarko tailerretan eskainiko duzuen? Zeinentzako
izango da?**

Bi orduko tailer horietan mutil gazteek hartuko dute parte, gizon
heldu batek lagunduta. Guztira, 21 lagun izatea aurreikusten
dugu (interesatuek oraindik izena eman dezakete). Gure asmoa
bien arteko lotura sendotzea da, nagusi den maskulinitate pa-
triarkalaren eredu horrek gizonen arteko harremanetan sortzen
dituen zailtasunei helduz: elkar zaintzea, maitasuna eskaintzea,
elkarrengandik hurbil egotea, gure emozioak erakustea. Ho-
rretaz guztiaz hitz egingo dugu, eta agian praktikatuko dugu.
Gure asmoa da maskulinitatearen erronkak bizipenez eta gazteek
ulertzeko moduan azaltzea. Dinamikak, jokoak eta zirkuluak
egingo ditugu elkarri entzuteko. Helduak gazteen aliatuak eta
laguntzaileak izango gara eta, aldi berean, tailerra helduentzat
izango da, agian lehen ez geneukan zerbait ikas dezagun. Mai-
tasunetik, zaintzatik eta alaitasunetik diseinatutako tailerrak
dira. Elkarrekin egoteaz gozatzeko gune izango dira. Bi ordu
atsegin pasako ditugu, eta ziur nago gure botereari eta jakin-
duriari lotuago aterako gara.

Greba Feminista Orokorra zaintza eskubide kolektiboaren alde

Zaintza eskubide kolektiboaren alde, greba feminista orokorra egingo da Euskal Herrian azaroaren 30ean eta, egun horretarako ekintzak eta bestelakoak prestatzeko asmoz, Eibarko Greba Batzordeak aurreko astean egin zuen lehen asanblada mistoa. Aurrera begira, astean behin egingo diren asanbladak andra zein gizonentzat irekiak izango dira, eguenetan, 18:30etik 20:00etara, Andretxean.

Eibarko Greba
Batzorearen bideoa
ikusteko



Aurreko astekoa lehen asanblada mistoa zela-eta, Euskal Herri osoarako deitu duten Greba Feminista Orokorra bere testuinguruan azaltzeko aurkezpen labur bat egin zuten Eibarko Greba Batzordeko bi kideek, baina, beste ezer baino lehen, orain arte Eibarren zertan aritu diren azaldu zuten. Esan zuten, herriko talde feministek uda aurretik egin zituzten lehen bilerak, eta Arrateko jaien ondoren lehen asanblada (emakumeek bakarrik): “Orain arte, zaintza-lanetan ari diren eragile eta bestelakoen zerrenda osatu dugu, asanbladetara gonbidatzeko. Eibarrera ekarri ahal ditugun aldarrikapenak identifikatu ditugu baita ere. Eta greba egunaren irudikatze moduko bat ere egin dugu. Izan ere, azaroaren 30a San Andres eguna da Eibarren, eta horrekin nahiko buruhauste izan ditugu. Udalarekin ere bildu gara, eta San Andres eguna beste egun batera pasatzeko proposamenari ez diote ezetz esan, baina oraindik

ez digute ezer erantzun. Kultura Batzordean aztertu behar dute zer egin, eta horren zain gaude”.

Epe luzeko erronkaren aurrean

Hamaika arrazoi tarteko, zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba izango da azaroko azken egunerako deitu duten hau: “Gaur egun zaintza lanak ez daude modu justu batean banatuta, orokorrean zaintza lan guzti hauek emakumeon gain jausten dira, eta ez daukate inolako aitortza sozial, ekonomiko edo politikorik. Euskal Herrian badakigu zein den gaur egungo egoera. Zaintza zerbitzuak geroz eta privatizatuagoak daude, eta sektore prekarizatu horretako langileen egoera geroz eta okerragoa da. Eta gauza jakina da langile horietako gehienak emakumeak direla. Horregatik esaten dugu bestelako sistema bat behar dugula, denon bizitzak eta, beraz, zaintzak, erdiguneko kokatzeko. Horrek beste bizitza eredu bat, beste bizimodu eredu baten alde lerrotatzea eskatzen du.



Greba Feminista Orokorra antolatzeko hurrengo batzarrak ere Andretxean egingo dituzte, eguen arratsaldetan. SILBIA HERNANDEZ

Horregatik esaten dugu epe luzeko erronka baten aurrean gaudela, eta zaintzaren auzia korapilo eta ertz asko dituen gaia dela”.

Zaintzaren gaia agendan

Grebari esker lortu nahi diren helburu nagusiak hauek lirateke: zaintzaren gaia problematizatzea; zaintza eskubidearen aitortza unibertsal eta instituzionala aldarrikitzea; zainketen gaur egungo antolamendu soziala eraldatzea; zaintza sistema publiko komunitario bat erakitzea; komunitateak berak ardura hartzea; eta instituzioek ere bere gain hartzea dagozkien ardurak. Diotenez, “helburu guzti hauek lortzeko beharrezkoa da zaintzaren gaia agendan erdigunean kokatzea, maila ezberdinetako interpelazioak eginda, bai norbanakoei, gure buruei, eragile ezberdinei, botere ezberdinei... eta, batez ere, akordio zabala bilatzen joatea, aldaketak benetan burutzeko”.

Nabarmendu nahi dute azaroaren 30eko greba “orokorra eta fe-

minista” izango dela, eta ez dutela sindikatuek bultzatu: “Mugimendu Feministatik sortu eta deitutako greba da, orokorra bai, baina baita ere feminista. Beste grebetan bezala, honetan ere soldatapeko langile guztiak daude deituta, baina baita soldatarik jasotzen ez duten beste pertsona guztiak ere. Hau da, orain arte ikusezinak izan diren sujeto guztiak ere daude deituta”.

Orain artekotik bereizten den grebaren kontzeptu hau ez da egun batetik bestera, bapatean aldatu: “Azken bi greba feministetan hasi ginen, moduren batean, beste greba eredu bat planteatzen, eta enplegu eta kontsumo grebari zaintza greba deitu zitzaion”. Orain greba prestatzeko lanean buru-belarri ari badira ere, aurrera begira lanean jarraitzeko asmoa daukate: “Greba ostean ere lanean jarraitzea aurreikusten dugu. Argi laga nahi dugu greba antolatzeko gaudela hemen, baina baita ere zaintzaren arazoari heltzeko, eta hori ez da egun bakarrean konponduko”.



Greba Feminista Orokorri buruzko informazio guztia ikusteko, eskaneatu





MIKEL ARRILLAGA

Oldarraldiak eta koldarraldiak

Errusia Ukrainari oldartu zitzaionean, denok jarri ginen txikiaren alde eta handiaren aurka. Vladimir Putin munduko deabru nagusi izendatu zuten hedabideek, eta Ukrainako banderak azaldu ziren bazter guztietan: telebistetako goiko ertzetan, futbol zelaietan...

Agintariek Ukrainaren alde hitz egiten zuten etengabe, elkartasuna adierazten zioten herrialdeari uneoro, eta bestelako edozein iruzkin egiten zuena Errusiaren aldekotzat jotzen zuten.

Israelek aspaldi okupatu zuen Palestina. Orduetik Gazako biztanleak egoera tamalgarrian bizi dira, itsasoaren, harresiaren eta basamortuaren erdian harrapatuta, eskubiderik gabe eta errepresio latza jasaten, giza laguntzen mende. Azken asteotan sekulako sarraskia egiten ari da Israel, ospitaleak botatzerainokoa. Argindarrik, urik eta erregairik gabe utzi ditu palestinarrak. Ikaragarria.

Pentsa zitekeen, genozidioaren aurrean, hemengo agintariek gogor hitz egingo zutela Israelen eta Netanyahuaren aurka, azken hori Putinen deabru mailara igotzeraino. Pentsa zitekeen Palestinaren aldeko elkartasuna bultzatuko zutela ere... Ez ba... kontrakoa ikusi dugu; galdetu bestela Ipurua futbol zelaitik bota zuten morroiari. Are gehiago, Israelen defentsarako eskubidea aldarrikatu zuten.

Boterea eta indarra daukanak erabili egiten du uneko interesen arabera, horixe da kontua. Espainiako epaile ultrek ere euskarari egurra ematen diote; desagerrarazi egin nahi dute, badakitelako euskarak egiten gaituela herri. Joango gara manifara azaroaren 4an, botako ditugu oihu batzuk, baina ezer gutxirako balioko du, epaileek hain garbi daukaten horretaz geu jabetu eta erabaki irmoak hartzen ez ditugun bitartean.

“Joango gara manifara azaroaren 4an, baina ezer gutxirako balioko du, epaileek hain garbi daukaten horretaz, geu jabetu eta erabaki irmoak hartzen ez baditugu”

EZTEIAK



TORREALDAY

GEHIGARRIA

46. zenbakia. 2023ko UDAZKENA

"TIRO PITXON JATETXEA"
Arraten
 - Eguneko menua
 - Asteburuko menua
 - Menu bereziak
 - Karta...
 - Ezkontzak
 - Ospakizunak...
TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

ROSANA
ILEPAINDEGIA
943 120624
 URKIZU PASEALEKIA, 7 - BEHEA

Bitxitegia
J. Salaberria
 Errebal, 22 943 20 20 79
RELOJERIA
SALABERRIA

YOKASTA Calbeton, 22-24
 Tel. 603 344 258
 Manikura Aretoa
MANIKURA
 5 €tik hasita
PEDIKURA
 10 €tik hasita
 zure azarkatak
 zure espresio bitza

Izadi
LORA DENDA
 Enkarguak etxera
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

ROCA
 CALBETON, 16 TEL. 943 20 80 06
 -EIBAR-
Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!

Nolakoak izango dira 2024ko EZKONTZAK?

Ezteien mundua etengabe ari da eboluzionatzen. 2024an ezkontzeko asmoa baldin badaukazu, jakizu sormenez, maitasunez eta estiloz betetako urtea izango dela.

Minimalismo Chic: Gutxiago gehiago da 2024an. Bikoteak dekorazio erraz eta dotoreak aukeratzen ari dira, xehetasun sotilen edertasunean eta kolore neutroetan oinarrituta, giro sofistikatu eta lasaia sortuz.



Ezkontza ekologikoak: Ingurumenaren kontzientzia handitzen ari da, eta ezkontzak ez dira salbuespena. Bikoteek euren ospakizunetan ingurumenarekiko begirunea bilatzen dute sormena erabiliz, gonbidapen digitaletatik hasi eta tokiko eta sasoiko osagaiekin banketeak egiteraino.

Teknologia interaktiboa: 2024ko ezteietan teknologia modu originalean erabiliko da: bertan egon ez daitezkeen gonbidatuentzako zuzeneko transmisioak, gonbidatuei ekitaldian nabigatzen laguntzen dieten aplikazio pertsonalatuak... Teknologia eraldatzen ari da ezkontzetako esperientzia.



TORREALDAY

Helmuga exotikoak: Bikote abenturazaleak helmuga exotiko eta urrunetara eramaten ari dira ezkontzak. Hondartza tropikalak, Europako gazteluak... Era horretako ezteiek esperientzia paregabea eskaintzen diete ezkongaiiei eta gonbidatuei.

Ezohiko loreak: Bikoteak ohikoak ez diren lore-konponketak aukeratzen ari dira: lore lehorrak, belar usainsuak... Ezohiko hautu horiek, ederrakizateaz gain, ukitu bereizgarria ere eranstean diete dekorazioari.

Moda abangoardista: 2024ko neska-lagunaren jantziak eta soinekoak hesiak apurtzen ari dira. Esate baterako: korte asimetrikoak, metalezko xehetasunak eta kapa bitxiak ikusiko dira, eztei-moda ausarta eta abangoardista bihurtuz.

Nahasketa zirrargarria: Datorren denboraldirako, dotorezia klasikoaren, ukitu modernoaren eta xehetasun erromantikoaren nahasketa zirrargarria ikustea espero da.

Khôl Estilistak Estaziño, 4 943 254776

Ezagutu edertasun kontzientearen kultura berri bat aktibo botaniko % 100 naturalekin

Secretos del agua

F. Calbeton, 1 - 1. ezk. 943 20 70 47
www.castañopeluqueria.com

castaño peluqueros
castanopeluqueros

Aurrez aurreko zita

CASTAÑO



TORREALDAY

Hona hemen datorren denboraldirako emaztegiaren soinekoen joera nabarmen batzuk:

Dotorezia minimalista:

Lerro garbiak eta silueta minimalistak dituzten emaztegiaren soinekoak joeran daude. Ebaki xumeek, ehun leunek eta xehetasun dotoreek (hala nola "ilusio eskoteek" eta mahuka luzeek) *look* moderno eta sofistikatuak sortzen dute estilo diskretuagoa nahiago duten ezkongaiantzat.

Kapak eta bolanteak:

Kapak eta bolanteak ospea hartzen ari dira andregai-jantziaren. Xehetasun horiek mugimendua eta sakontasuna eragiten diote jantziari, itxura etereo eta erromantikoa sortuz. Tul geruzak eta bolante delikatuak gonak nabarmentzeko erabiltzen dira, glamour eta dotorezia ukitua gehituz.



Soineko bohemioak:

Bohemio estiloak joera sendoa izaten jarraitzen du, parpaila leunak, kanpanadun mahukak eta silueta jariakorrak dituzten andregai-soinekoekin. Soineko bohemioak, askotan, vintage xehetasunekin osatzen dira, hala nola lore-brodatuak eta farfail-aplikazioak, itxura erromantiko eta erlaxatua sortuz.

Bidebarrieta, 28 943 20 73 73
Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

fasprint
inprimategia

EZKONTZA GONBIDAPENAK
gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin

SERIGRAFIA

☎ 943 20 16 13 📧 688 68 73 85 Ego-Gain, 11 ac
fasprinte@yahoo.es www.fasprinteibar.com



BELAUSTEGI

— BASERRIA —

ZURE EZKONTZA
ZURE NEURRIRA!



“Taldearen edo nire laguntzagatik norbaitek onurak igartzen baditu, poz-pozik egongo naiz”

ROSANA ARANA • Pagatxako arnasten ikasteko tailerren arduraduna



Gizakiontzat ezinbestekoa da arnastea eta modu inkontzientean egiten dugu. Hartu eta bota, hartu eta bota. Nahi barik egiten dugu. Rosana Aranak, ostera, arnasteari garrantzia eman dio ‘Respiramos vida’ liburuan, Pagatxan ematen dituen tailerretako ariketak eta azalpenak hedatuz.

BIDEOA



Rosanak 13 urte daramatza Pagatxa elkartean arnasketa-tailerrak eskaintzen eta ehun lagun inguru aritu dira bertan. Orain, parte-hartzaileek bultzatuta, bere jakinduria liburuan islatu nahi izan du eta Rubric argitaletxearekin publikatu du lana. Pagatxan edo Rosanarekin harremanetan jarrita eskuratu daiteke, eta baita ‘Itxesí’ eta ‘Burbujas y mas’ dendetan ere.

Zer aurkitu dezakegu ‘Respiramos vida’ liburuan?

Eskuliburua da, praktikoa, Pagatxako arnasketako tailerretan egiten ditugun ariketak batu ditugulako bertan. Orain dela lau urte, tailerretan parte hartzen duten emakumeak hasi zitzaizkidan esaten klasean egindakoa liburuan jaso behar nuela, asko ikasten zutelako, arnasketekin oso ondo sentitzen zirelako, eta abar. Saiatuko nintzela esan nien, baina ez da bide erraza izan, tailerretan ez dudalako gidoirik jarraitzen, unean uneko egoerara egokitzen saiatzen naiz.

Nola moldatu zara, orduan, gauzak ordenatzeko eta liburuan argi lagatzeko?

Hori izan da zailena. Urtebetez, klaseak amaitzen nituenean, oharrak apuntatzen nituen. Poliki-poliki informazioa pilatu nuen. Gauza bat da ariketak ahoz

azaltzea, baina idaztea beste kontu bat da, eta gero, irakurtzea. Jendeak ondo ulertuko zuen ala ez zen, hori zen nire ardura nagusia. Liburua maiatzean jaso nuen eta ikastaroa amaitu baino lehen tailerreko emakumeei erakutsi nien, eta ulertzen dela esan zidaten. Hori zen garrantzitsuena.

Testuaz gain, irudiak daude ulertzen laguntzeko?

Bai, badaude batzuk. Esan behar da, hasteko, ariketak Txinako medikuntza tradizionalan oinarritzen direla. Gorputzaren beste begirada bat hartzen dugu hortik eta errazago ulertzen ditugu hainbat gauza. Adibidez, orain, udazkenean, gure arnasketa jaisten hasi behar da, hau da, lasaitu. Udan bizi-bizi gabiltza, eta udazkenean, lanarekin eta abar, egoera aldatu egiten da, eta horrekin batera arnasketa ere bai. Puntuak erabiltzen ditugu arnasteko, baita zatiak ere, eta meridianoak eta puntu bereziak ezagutzen ditugu pixka bat. Ba azalpen horiek liburuan agertzen dira.

Arnasketa modu kontzientean egitea aipatu izan duzu. Baina nola?

Arnasketa kontzientea egiten hasteko, pauso batzuk eman behar ditugu. Batetik, arnasketari arreta eta intentzioa jarri behar dizkiogu. “Zer egin nahi dut?”, galdetzen diogu geure buruari. Adibidez, birrikak ak-



Argitaratzen duen lehen liburua da Rosana Aranarentzat. RUBRIC

tibatu nahi ditugu. Horretarako, eskuekin mugimenduak egiten ditut biriken inguruan eta, horren bidez, burmuinak informazioa jasotzen du. Orduan, energia sortzen da arnasarekin, eta bero horrekin batetik bestera joaten gara.

Nolako onurak ekarri ahal dizkigu arnasketa kontzientek?

Nik ikusten dut, hain gauza sinplearekin (ariketak oso erraz egitekoak direlako) Pagatzako emakumeak oso ondo sentitzen direla arnasketa hauek egin eta gero. Oso sentsazio onak izaten dituzte, lo egiteko orduan lagungarria da... Tailerretan hori ikusten dugu eta parte-hartzaileek kontatzen dute hori. Buruari ere ondo egiten dio arnasketa honek eta eguneroko gauzetan laguntzen digu. Beti entzun dugu "arnasa hartu" esaldia eta, bai, laguntzen digu gauzak egiteko orduan. "100era arte kontaktu" ere esaten da. Guk kontatzen dugu, baina zenbakiak gure hemisferioetan zer egiten duten badakigu. Horrela, dakigunean, onurak datoz. Niretzat garrantzitsua da jendea aldaketak ikustea eta, nire edo taldearen laguntzagatik norbaitek onurak igartzten baditu, poz-pozik egongo naiz.

Denbora behar da aldaketa horiek igartzeko?

Batzuetan momentuan igartzen dira, baina beste batzuetan denbora behar da. Ikastaroa urritik ekainera arte egiten dugu eta denbora dugu gauzak garatzeko. Eguaztenetan elkartzen gara, 11:30ean, ordubetez, Kezka Dantza Taldeak Portalean lagatzen digun gelan. Eskerrak eman behar dizkiegu. Hamar lagun inguru elkartzen gara. Zenbaki ona da, 15 lagunetik gorako taldea gehiegizkoa izango litzatekeelako. Pertsona bakoitzak ariketak nola egiten dituen ikustea gustatzen zait, pertsonalizatzea. Ondo egoten da bakoitzak nola sentitzen den azaltzea, asko aberasten du. Klasean astea nola joan zaien galdetzen diet eta poliki-poliki sentitzen dutena azaltzen dute. Zoragarriak dira!

Lehenaren atzetik, baduzu bigarren libururik buruan?

Bai. Ideiak zurrunbiloan datoz eta joan den egunean titulua etorri zitzaidan burura: 'Gizonezkoek ere arnasten dute'. Ekintza batzuetan emakumeak ikusten ditugu bakarrik: gure ikastaroetan eta beste ikastaro batzuetan, antzerkian, irakurketan... Ba gizonek ere arnasten dute. Noski. Zergatik ez? Eta titulu hori okurritu zitzaidan.

Illunabarrian-eko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

...eta kitto! Euskara Elkarteak bi ikastaro antolatu ditu azarorako. Lehenengoan larruzko zorroak egingo dira: “Larrua lantzeko oinarrizko teknikak erabiliz egingo ditugu zorroak, ez da aparteko trebetasunik behar”, diote elkartetik. Azaroaren 14an izango da ikastaroa ... eta kitto!-n, 18:30etik 20:30era. Eta azaroaren 21ean, berriz, Jorge Oteiza euskal artistaren artearen inguruko tailerra egingo da. “Oteizaren lana ezagutuko dugu.



Kutxa huts ospetsuen antzeko eskulturak sortuko ditugu kolore eta formarekin esperimentatuz”, ...eta kitto!-tik diotenez. Tailer hori ere elkartearen egoitzan egingo da, 18:30etik



20:30era. Izena emateko epea azaroaren 10era arte luzatuko da; telefonoz deitu daiteke (943200918) edo mezua bidali elkarte@etakitto.eus helbidera. Ikastaroetan parte hartzeak 5 euro balio du (doakoa da ...eta kitto!-ko bazkide eta berbalagunentzat). Plaza mugatuak dira bietan.



...eta kitto!-k ere dei egin du Bilboko manifestaziora joateko

Azken hilabeteotan epaitegietatik euskararen aurka ateratako ebazpenen aurrean protesta egiteko manifestazioa deitu du Kontseiluak azaroaren 4rako Bilbon. Hori dela-eta, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, deialdiarekin bat egitearekin batera, dei egin die eibartarrei, “euskara jasaten ari den erasoak salatzeko eta herritarron hizkuntza eskubideak defendatzeko Bilboko manifestazioan parte har dezaten”.

San Andres Bertso Jaialdia azaroaren 24an egingo da Coliseon

Eta lehenengo aldiz sei bertsoariak jardungo dute lau beharrean: Unai Iturriaga, Maddalen Arzallus, Oihana Bartra, Beñat Gaztelumendi, Jon Maia eta Unai Agirre. Gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da. Arratsaldeko 20:00etan ekingo zaio ekitaldiari bertso-paper lehiaketako sari-banaketarekin, eta ondoren jardungo du norbaino nor seikoteak. Sarrerak egunean bertan salduko dira Coliseoko leihatilan 8€-tan.





Eman ongietorria Hamaikako podcast formatu berriari!

Aktualitatea, informazioa eta entretenimendua euskaraz eta zuretzat.

hamaika^{eu}

YouTube Spotify iVOOX

Astero saio berriak eta gehiago hamaika.eu web atarian.



Hirigintza arloan Perun egindako lankidetzeta-proiektuen erakusketa

Bihar hasi eta azaroaren 1era arte, “Utopia zehatzak. Lankidetzako hiri-proiektuak Limako auzoetan 2015-2023” erakusketa ikusi ahalko da Portalean, areto nagusiaren atarian. Hirikiten Eibarko elkarteak zortzi urte daramatza Peruko CITIO-CCC-Espacio Residual elkartearekin batera lanean, eta egin dutena azaltzeko antolatu dute erakusketa. Diotenez, “bi elkarteek garatzen diharduten proiektuak hirigintza dinamiko eta estrategiko bat sustatzen du, batez ere egunerokotasunaren ikuspegitik, eta haurrak, emakumeak eta artistak aintzakotzat hartuz”. Erakusketa zabalteko, bihar 12:00etan hitzaldia emango dute Portaleko areto nagusian.



Aitxitxa-amamak ederki ibili ziren ilobekin batera jokoan

Kalabaza Saria belaunaldien arteko futbolin txapelketa jokatu da Untzaga Gizarte Etxean. Belaunaldi ezberdinak elkartzeko lehen saiakerak harrera ona izan du, eta aitxitxa-amamak biloba-ilobekin batera ederki aritu ziren: Daniel Badiolak eta Ekhi bilobak irabazi zuten txapelketa, eta garaikur-kalabaza jaso zuten. Eta, horrez gain, parte-hartzaile guztientzat gozokiak banatu zituzten.



Zugastiren “Txirrindularia” ikus daiteke museoan

Barixakuan inauguratu zuten Eibarko Armagintzaren Museoan “Txirrindularia”, Jose Zugasti eibartarraren erakusketa. Artistarekin batera, udal ordezkariak, Maria Jose Telleria Kultura sailburua eta Peio Ruiz Cabestany txirrindularia egon ziren ekitaldian. Aldi baterako ikusgai ipini duten eskultura Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, eta Armagintzaren Museoan erakusteko laga du artelana, 10 urtez. Horrekin batera, artistak eskulturaren aurretik sortu zuen zirriborroa, Eusko Jaurlaritzak lagatakoa, eta Zugastiren beraren litografiak eta azterketak ikusi daitezke. Otsailaren 18ra arte joan daiteke ikustera eta sarrera doan da.



Arrate Kultur Elkarteko artelanak Topalekun ikusgai

Aurreko barixakuaz geroztik ikus daiteke Arrate Kultur Elkarteko bazkideen erakusketa, Topalekun. Azaroaren 5era arte egongo da ikusgai, eta egunero zabalduko dute, arratsaldez (19:00etatik 21:00etara) eta asteburuetan, gainera, 12:00etatik 14:00etara ere joan daiteke ikustera. Orotariko artelanak biltzen ditu erakusketak, eta estilo eta diziplina artistiko ezberdin ugari ikus daitezke.



Irudiak, argiak eta dantza batzen dituen ikuskizuna

Brodas Bros eta Desilence-ren eskutik “Doji” izenburuko dantza ikuskizuna ailegatuko da Coliseora eguaztenez, 19:00etan. Talde biek indarrak batu dituzte, eta irudiak, interakzioa eta dantza aldi berean erabilia, datorren astean eskainiko duten pieza hori sortu dute. Koreografia Lluç Fruitosena da, eta dantzariak Berta eta Clara Pons, Pol eta Lluç Fruitos, Marc Carrizo eta Hector Puigdomenech dira. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoren Laguna txartelarekin).



Neledantzak Gau Beltza ospatu du gaur Errebalen

Neledantza dantza eskolak Gau Beltza ospatuko du gaur, 19:00etan, Errebal Plazan, “antzina Euskal Herrian ospatzen zen moduan, Halloween ailegatu baino lehen egiten zen bezala”, esan digu Nerea Lodosa zuzendariak. Dantza eskolako kide guztiek hartuko dute parte, 5-60 urte bitarteko ehun lagun baino gehiagok. Guztira 14 pieza (13 koreografia eta agurra) dantzatuko dituzte, eta ikuskizunak ordubete iraungo du. Nerea Lodosak zuzendu du, eta Jakobe, Ariana Mancheras, Miren Ferrero eta Jule Gisasola izan dira dantza-irakasleak.



Euskarazko komedia garratzarekin dator Tentazioa

Tentazioa Konpainiak “Ez naiz Dublinen inoiz egon” antzezlan komikoa aurkeztuko du bihar, 19:00etan, Coliseon. Mireia Gabilondok zuzendutako lan horretan aktore oso ezagunak igoko dira oholtzara, zuzendariarekin batera: Iñigo Aranburu, Iñigo Azpitarte eta Aitziber Garmendia. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Eibarko Musika Bandak domekan hasiko du Coliseoko denboraldia

Eibarko Musika Bandak Coliseon joko du domekan, 12:30ean, Andoni Vazquezen zuzendaritzapean. Zuzendariaren arabera, kontzertuaren errepertorioan denetik dago eta bost pieza joko dituzte guztira: *Fiesta en la Caleta* (J. Texidor), *El Bateo* (F. Chueca), *Aires Vascos nº2* (J. Franco), *El Carnaval de los Animales* (C. Saint-Saëns) eta *Balkanska Zabava* (A. Vazquez). Sarrerak (doan) Coliseoko leihatilan edo Interneten (Kutxabank bitartez) eskuratu daitezke.

Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa



Udalak eta Eibarko Artisten Elkarteak urtero antolatzen duten pintura lehiaketaren 46. edizioa domekan egingo da. Nahi duten artista guztiek har dezakete parte, gaia librea da eta pintura-teknika guztiak onartuko dituzte. Euskarriak, gehienez, 1x1 metro izango ditu, eta ezinbesteko baldintza da lana naturaletik hartuta egitea, adierazitako denboran eta tokian. Izen-ematea eta materialaren zigilatzea 09:00etatik 11:00etara egingo da, udaletxean, eta amaitutako margolanak ere bertan jasoko dituzte, 13:30erako.



Malape, Garajes Garcia eta BOJ futbol-zaletuaren 42. Ligaren buruan kokatu dira

Gol kopuru bikaina sartzearekin batera iritsi dira gorenera aipatutako talde horiek, azken jardunaldian hiruren artean 19 gol lortu eta gero. Aurreko jardunaldieta-ko parekotasuna albo batera laga zuen oraingoan ligako bosgarren jardunaldiak eta, bina berdindu zuten Xania eta GastroGildaren artekoa kenduta, beste guztietan markagailuak emaitza ezin argigarriagoak erakutsi zituen. Horrela, Malapek 7-0 gainditu zuen Limpieza Ruedaren erresistentzia, Garajes Garcia 5-1ekoa sartu zion Baserriri eta, azkenik, BOJ ere ez zen atzean geratu 7-4 irabazi zion Adahi Eraieder taldeari. BOJ-eko Asierrek, gainera, had-tricka egin

zuen, hiru gol eskuratuta; bina gol egin zituzten Garajes Garcia-ko Larrar eta Eriz, Malapeko Borja eta Unai, eta BOJ-eko Julen jokalariek.

Sailkapenean Malape eta Garajes Garcia taldeek 10 puntu dituzte, BOJ-ek bat gutxiago, GastroGilda hirura dago, Xania laura, Marem eta Baserri seira, Limpieza Rueda zazpi puntura, eta bat gutxiago du Adahi Eraieder-ek, sailkapeneko azkenak.

Asteburuko partiduak, seigarren jardunaldikoak, honakoak izango dira: zapatuan, Baserri-Malape (09:00) eta Garajes-Marem (10:30); eta domekan, GastroGilda-Adahi (09:00) eta Xania-BOJ (10:30).



Asola Berrikoak onenen artean Mallabiko bolatokian

Aurreko asteburuan jokatuako Euskal Herriko hiru-txirilo bola txapelketaren bigarren jardunaldian, Bittor Ugarteburuk eta Bittor Rodriguezek nor baino nor lehiatu zuten parrekoetan tiraldiko lau-garren eta bosgarren postuak erabakitzeke; azkenean, Ugarteburuk irabazi zuen Asola Berrikoen artekoa. Biek ere lau txirilo bota zituzten Mallabiko Goita auzoko bolatokian eta hurrengo jardunaldia zapatuan jokatu da Azkoitiko Floreagan, 17:00etan hasita.

ADI OSTALARIOK!

VIII. GILDA LEHIAKETA

EIBARREN ABENDUAK 12 13 14

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: AZAROAK 10

Informazio gehiago: 943200918 / elkarte@etakitto.eus

Asier Cuevas herri-lasterketaren 10. edizioa azaroaren 18an jokatu da



Asier Cuevas herri-lasterketaren 10. edizioak badu, dagoeneko, data: azaroaren 18an jokatu da. Ohikoari jarraituko zaio eta proba arratsaldeko 17:00etan hasiko da hamargarren edizio honetan ere. Ibilbideari dagokionez ere urterokoari eutsi diote proba antolatzen duten Eibarko Klub Deportiboko atletismo batzordekoek, herrian hiru itzuli egin eta zazpi kilometro eta erdiko distantzia osatzeko. Izen-ematea Deporreko tabernan egin daiteke, egunero 17:30etik 19:30era, eta baita www.sailkapenak.com web orrian ere. Inskripzioak 12 euroko prezioa du.

Eibar-Valladolid gaur gauean Ipuruan (21:00)

Pisu bereziko norgehiagokari egingo diote aurre gaur gauean Joseba Etxeberriaren mutilek, goiko postuetako borroka berean dabilen Valladolid aurkari dutela. Talde biek puntu kopuru bera dute, 22 hain zuzen ere, eta azken jardunaldian biek irabazi zituzten jokaturako partidua: Eibarrek Zaragozan 2-0koa irauli eta 2-3 nagusitzeko, eta Gaztela-Leongoek hain joko landua egiten duen Andorrari (2-0), ate aurrean hobeto moldatzen direla erakutsiz. Partidu horretarako sarrerekin batera, azaroaren 12an Albaceteren aurka jokatu den neurketarako ere salgai jarri dituzte klubean. Sarreren prezioa 20 eta 30 euro bitartekoa da, eta 13 urtetik beherakoek 10 euro ordainduko dituzte. Prezioak honakoak dira: funtsak eta Baldeak, 20 euro; Aaldeak, 25 euro; erdialdea, 30 euro; eta haurrak, 10 euro. Bi partidua gaur jokatu direnez, edozeinek haurren txartela erabili dezake sartzeko.

Pilota partiduak gaur Astelenan

Gaur 18:30ean hasiko den pilota jaialdian garrantzi handiko norgehiagokak jokatu dira, Gipuzkoako txapelketako lehen fasea amaitzeko lau jardunaldi besterik falta ez direnean. Eskuz binakakoak izango dira biak: lehenengoa kadete mailakoa izango da eta hor Varona-Azpilikueta Eibarko bikoteak Zestau-Oñate Villabonakoa izango du aurrean. Jarraian, senior mailako partiduan, Narvaiza-Agirresarobe etxeko bikoteak Lizaso-Urbieta izango du aurkari, hori ere Villabonakoa.



<p>FUNEUSKADI Funeraria</p> <p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funeraria</p> <p>TANATORIO CEMENTERIO ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xizillon, s/n. SGMA Industrialedea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	



Eibarrek eman duen errugbiko jokalaria onenatarikoa hil zen astelehenean

Euren ibilbidea Eibar Rugby Taldean hasi dutenen artean gutxi izanango dira Urtzi Abantzabalegik kirol horretan laga duen arrastoa lortu dutenak. Taldean maila bikaina erakutsi eta klubeko jokalaria funtsezkoena bihurtu ondoren, Euskal Herriko talde indartsuenetan jardun zuen Abantzabalegi pillierrak, Ordizian hasi eta, ondoren, Getxon, Bera Beran eta Stade Hendayaisen ere jokatzeko. Basque Korsarioak eta Euskarians selekzioko partaide izandakoak ondoren entrenatzaile lanetan ere jardun zuen; gaur egun Eibar Rugby Taldeko zuzendaritza-kopartaaidea zen. 46 urte zituen Aba-

diñon lanean ari zela hildako errugbi jokalaria-ohiak eta bere heriotzak samin handia sortu du errugbi-zaleen eta, orokorrean, eibartarren artean.



Urtzik errugbi modalitateko saria jaso zuen Eibarko Kirol Sarietako 3. edizioan

Eibar Igerixaneko igerilariek zazpi proba irabazi zituzten Azkoitian

Aurreko zapatuan Azkoitiko Zubiaurre kiroldegian jokatutako Neguko Gipuzkoako Ligako lehenengo jardunaldian, gure herriko igerilariek lan paregabea egin zuten. Zazpi proba irabazteaz gain, podiumeko beste lau postu ere bereganatu zituzten Eibar Igerixaneko ordezkariek, zilarrezko eta brontzezko bina dominekin. Hemezortzi igerilarik ordezkatu zuten guztira Eibarkoen taldea, bederatzi federatuen mailakoak (bost emakume eta lau gizonezko) eta beste hainbeste eskola mailako taldean (zazpi neska eta bi mutil).

Federatuen artean, Paula Calvok hiru proba poltsikoratu zituen (1.500 libreak, 200 estiloak eta 50 bizkarrekoa), Asier Gomezek libre erako 1.500 metrotakoa irabazi zuen eta Igor Ruiz bigarren izan zen tximeleta erako 100 metrokoan. Gaztetxoeren artean, Itsaso Castrillo tximeletako 100ekoan eta bizkarreko 50ekoan nagusitu zen (200 esti-



lotan bigarren izateaz gain), Jokin Onekak 50 metroko braza estilokoa irabazi zuen (hirugarren izateko 200 estiloetan) eta Alba Sierra hirugarren izan zen braza modalitateko 50 metrokoan.

Aipatutakoez aparte, Eibar Igerixanek honako igerilariak aurkeztu

zituen Azkoitian jokatutako jardunaldian: Maialen Gomez, Maddi Jauregi, Malen Beobide, Nora Guinea, Ekaitz Lago eta Julen Canales federatuen mailan; eta Jone Avellaneda, Izaro Oneka, Malen Pedrosa, Itziar Eiriz, Nahia Martinez eta Ander Castro eskola mailakoan.

URTZI**Abantzabalegi Arantzabal**

NAHIZ ETA ORAIN
MUNDUA ZATARRAGOA
IZAN, ZUREKIN
BIZITAKOAK
SAMURTUKO DIGU
BIDEA.

— ZURE KUADRILLIA —



**MILESKER
GURASOTASUNA
BENETAKO
ADISKIDETZA
BIHURTZEAGATIK.
BIBA ZU, BETI...**

2014ko hauren gurazolagunak



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			8			
		8	6			
6		9	2			5 7
8	1				2	9
			7		9	
9		2				4 3
5	3			1	4	6
				4	5	
			6			

B	C	Z	B	P	L
I	B	S	P	B	B
B	T	F	L	B	C
P	P	P	P	C	C
S	B	A	B	C	C
B	C	Z	B	P	L
B	C	Z	B	P	L
C	I	C	C	B	S
C	I	C	C	B	S
B	C	Z	B	P	L

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

3		4	6	8	
	1	2			6
5	7		8		
		5			1
9	5			6	2
1		9			
		7		3	2
7		4	1		
5	8	3			7

soluzioa

C	B	C	B	B	L
B	L	C	B	B	L
Z	C	L	O	B	P
C	I	C	C	B	S
B	C	Z	B	P	L
B	C	Z	B	P	L
B	C	Z	B	P	L
B	C	Z	B	P	L
B	C	Z	B	P	L
B	C	Z	B	P	L



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



Urriak 27 - Azaroak 2

BARIXAKUA 27

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00 Barixakuak Jolasian. Torrekuako parkea.

SARI-BANAKETA

19:00 Indalecio Ojanguren XXXVI. argazki lehiaketako sari-banaketa eta erakusketaren inaugurazioa. Portalea.

DANTZA

19:00/20:00 Gau Beltza ospatzeko dantza-ikusbizuna, Neledantza udal dantza eskolako ikasleen eskutik. Errebal Plaza.



ZAPATUA 28

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

08:15 Perretxikoak biltzeko mendi irteera. Autobusa Ego Gainetik.
16:00 Perretxiko aukeraketa eta sailkatzea, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik. Errebal Plaza.

HITZALDI-INAUGURAZIOA

12:00 "Utopia zehatzak. Lankidetzako hiri-proiektuak Limako auzoetan 2015-2023" Hirikiten eta CICIO-CCC-Espacio Residual elkartearen hirigintza-proiektuak biltzen dituen erakusketa zabaltzeko hitzaldia. Portalea (areto nagusia).

EKLIPSE GABA

12:30 Poteoa.
14:30 Herri-bazkaria.
16:30 Kontzertu akustikoa: Iraia eta Markel.
18:00 Bingoa.
19:00 Mojitada.
22:00 Kontzertuak: Krivex, NKO, Kalipotxo, DJ Potitos.
04:30 DJ Watsas. Eibarko Gaztetxia.



ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Barruan zer ote?", Amaia Egidazu ipuin-kontalariarekin. Portalea (areto nagusia).



ANTZERKIA

19:00 "Ez naiz inoiz Dublinen egon" (Tentazio konpainia). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

DOMEKA 29

UDAZKENTRAIL

08:30 Udazkentrail mendi lasterketa. Irteera eta helmuga: Eibarko Klub Deportiboa.



PINTURA LEHIAKETA

09:00/14:30 Aire zabaleko XLVI. pintura lehiaketa. Udaletxea.

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

10:30/14:00 Perretxiko erakusketa eta dastatzea. Produktu mikologikoen salmenta. Errebal Plaza.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseo.

ASTELEHENA 30

ARTEAN-IX IKASGUNE FEMINISTA

18:00/20:00 Sormen kolektiborako saio irekia, Eibarko bi emakume baserritarren partaidetzarekin. Andretxea.

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

19:00 Perretxikoen inguruko hitzaldia, Aranzadiko Josian Bereziartuaren eskutik. Klub Deportiboa.

EGUAZTENA 1

DANTZA

19:00 "Doji" (Brodas Bros + Desilence). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Urriak 28 eta 29:

- "ZER GERTATZEN ZAIGU GIZONOI? Maskulinitatearen erronkak". (Ipuruako Merkatu Plaza).

Urriaren 28 / Azaroak 1:

- "Utopia zehatzak. Hiri-proiektuak Limako auzoetan 2015-2023", Hirikiten eta CICIO-CCC. (Portalea).

Azaroaren 5era arte:

- **ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN erakusketa.** (Topaleku).

Azaroaren 19ra arte:

- "HEYBAR", Javier Rodriguez Perez-Curielena instalazioa. (Portalea).
- **INDALECIO OJANGUREN XXXVI. argazki-lehiaketa.** (Portalea).

Otsailaren 18ra arte:

- "TXIRRINDULARIA", Jose Zugasti eibartarrarena. (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

27an (BARIXAKUA)

BERTSO JAIALDIA

20:30 Ermua Antzokia Onintza Enbeita, Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Miren Artetxe eta Jon Maia. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **29an:** 20:00
- **30ean:** 19:30

“Mi otro Jon”
KOMEDIA



2023/Espainia/125'
Zuzendaria: Paco Arango
Aktoreak: Carmen Maura,
Olivia Molina, Fernando Albizu
Osasun arazoak / Drama

2 ARETOA

- **28an:** 19:45, 22:30
- **29an:** 17:00, 20:00
- **30ean:** 19:30

“Mamacruz”
KOMEDIA



2023/Espainia/84'
Zuzendaria: Patricia Ortega
Aktoreak: Kiti Manver,
Pepe Quero, Ines Benitez
Zahartzaroa / Informatika

ANTZOKIA

- **28an:** 17:00, 19:45, 22:30 (1)
- **29an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **30ean:** 19:30

“Alimañas”
KOMEDIA



2023/Espainia/100'
Zuzendaria: Jordi Sanchez
Aktoreak: Jordi Sanchez,
Carlos Areces, Silvia Abril
Komedia beltza / Herentzia

ANTZOKIA

- **28an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **29an:** 17:00

“La patrulla canina”
ANIMAZIOA



2023/Hegoafrika/92'
Zuzendaria: Cal Brunker
Txakurrak eta otsoak / Abenturak



Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

TXIRIXO ELKARTEAK
zu bezalako bazkide, lagun
eta pertsona bikain baten
hutsa beti somatuko du,
Txolo eta Boti-renak
bezala.



TXIRIXO ELKARTEKO BAZKIDE
GUZTION PARTEZ. BIHOTZEZ,
“BIDAIA ONA IZAN
DEZAZULA BETIKO”



Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

“Akondia gaina
lanbroz bustita
esnatu da
gaur goizean.
Lagun maitea,
gorde zaitugu
betirako bihotzean”



LOREREN
IKASTOLAKO LAGUNAK

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **LUKA**, martitzenian urtiak beteko dozuz-eta! Jarraitu dakazun bizipoza eukitzen! Laztan haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **IRUNE**, hillaren 30ian 7 urte beteko dozuz-eta. Familixaren partez. Maite zaitugu!!



DANEL Berrizbeitiak 2 urte betetzen dittu gaur. Zorion pillo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Jon, Unai eta Aratzen partez.



Zorionak, **IGOR!!** Gaur 10 urte egitten dozuz-eta. Egun zoragarrixa pasa!! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Alainen partez!!



Zorionak, **MARTIN!** Ondo ospatu zure urtebetetze eguna famelixa eta lagunekin. Asko maite zaittugu. 11 musu haundi.



Zorionak, **OINATZ**, atzo 11 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Bernat, Lur eta Naiken partez.



Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

2023/10/23

“Ezin beteko dan hutsunea laga dozu gugan”

**URTZI,
BETIKO GUREKIN!**

- FAMILIXIA -



M^a Angeles Arrieta Murgoitio

10. URTEURRENA
2013/10/25

“Bederatzi urte badira ere gure aldetik joan zarela...
EZ DITUGU INOIZ
AHAZTUKO
IZAN DITUZUN
ILUSIOA ETA BIZIPOZA”

- Jose Miguel eta Jaione Gorospe,
zure senarra eta zure alaba -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Eibarko Untzaga Plazan etxebizitza salgai. 79 m², guztiz berriztua, argitsua, balkoia, 3 logela eta igogailuarekin (ez da 0 kota). 634430647.

1.2. Errentan

- Buhardila-loft txikia alokagai Eibarko erdialdean azarotik aurrera. Igogailua eta aire egokitua. 686829613.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai San Pion. Zabala eta sarrera onarekin. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da zain-tzaile bezala arratsalde. 649025614.
- Gizonezkoa eskaintzen da etxeetan lan egiteko. 679912841. Juan Loor.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 614339369.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 614197781.
- Neska euskalduna eta arduratsua eskaintzen da goizetan ume bat edo bi zaintzeko zein eskolara eramateko. 616817058.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Habilitazioarekin. 602490595.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 611571297.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da garraiolari bezala, furgonetarekin. Prezio onak. 612223075.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. 612518275.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. 602381455.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo errekaduak egiteko eta umeak zaintzeko. Orduka. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. 615379164. Elsa.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko 13:00etatik aurrera. 620757528.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 643518492.
- Emakumea eskaintzen da etxeko obren amaierako garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko arratsalde. 638421827.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 637222318.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Neska behar da 2. DBHko ikasle bati etxean partikularrak emateko arratsalde (17:00-18:00). 624231204. Hassan.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
610 532 922 www.theleceer.com

24 orduko
urgentziak

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HEL BIDE
BERRIA J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com 943 203 903

est. fakal:

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

balta toloak, gortinak, estoresak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen loguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

Tel. 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



943-206776

Tripontziak menuak barne hartzen ditu ogia, kafea eta ardoa

Ardo zuria

García Olano, % 90 viura eta % 10 verdejo

Ardo beltza

Bodegas Añarez, % 92 Tempranillo, % 2 viura eta % 2 Garnatxa

GENGARRIA

+ 6 €

Botila bakoitzeko

Txakolina

Sagarmina, % 100 Hondarribi zuria

Ardo ondua

Ehun, % 100 Tempranillo

DEBARRA
Tripontziak
KLUB GASTRONOMIKOA

baratze

EIBAR

Bidebarrieta 39
943 84 55 03

Etxeko aperitiboa

Lumagorri- eta barazki-kaneloia eskabetxean, melokotoia eta ahate moussea

Txipiroia puntalet gainean eta perretxikoak kalabaza-aparrarekin

Txahal-miloria, tipula karamelutua eta gazta, patata-krematsua eta haragi-zukua

Mendaroko txokolatea, sasoiko frutekin eta erremolatxazko kurrustariarekin

MUNISTECI

ELGOIBAR
Alastia 44
943 74 31 02

Etxeko aperitiboa

Donostiar erako txangurroz betetako hostopilezko bolobana

Bakailao ajoarrieroa barazkiekin eta otarrainxekin

Onddoz betetako lumagorri-lingotea, txakolin saltsarekin

Mendaroko txokolate fantasia

Menua astelehenetik ostiralera eskuragarri

Mendiola

ERMUA

Erdikokale 19
943 54 35 80

Ongietorriko aperitiboa

Zesar entsalada lumagorri eta xoxote gaztarekin

Ondarroako zapoz eta ganboiz osatutako chilli craba

Basatxerriko txerrien masail-taloa, tipula morearekin eta chipotle maionesarekin

Mango-konpota, Mendaroko txokolatez egindako mascarponearekin

Pikua

MUTRIKU
Laranga Auzoa,
943 60 32 42

Foie bonboia

Entsaladaz eta ezkur-urdaiazpikoz prestatutako tosta kurruskaria

Bakailao-kokotxa parrillan, pil-pil gainean baratxuriz eta txakolinez prestatutako olio errearekin

Txahalaren harakin-azpizuna parrillan, patata errearekin eta ardo beltz saltsarekin

Brioche-torrada, Mendaroko txokolate-zopa hotzarekin

**Erreserbatu zure
Tripontziak
menua!**

Azaroaren 3tik 26ra

Menua 35€

bez barne

Bisitak

Azaroak 4, larumbata

Chocolates de Mendara 11:00 - 11:30

Tripontziak Dastaketa belaualdi berriaren eskutik
12:00 - 14:00

Azaroak 9, osteguna

Arrietakua Jauregia 12:00 - 13:30

Azaroak 11, larumbata

Dastaketa Mutrikuko Merkatu Txikian 12:00 - 14:00
(Ez da izena eman behar)

Goienetxe Gaztandegia 11:00 - 12:30

Azaroak 16, osteguna

Armagintzaren museoa 12:00-13:15

Azaroak 18 larumbata

Lasturko Talo Tailerra 11:00 - 12:30

Azaroak 23, osteguna

Santa Maria Eliza 12:00 - 13:30

Azaroak 26, igandea

Lizagarar sagartokixa 11:30 - 13:00

Izen ematea

943 82 01 10

Ast- Ostr. 09:00 - 15:00

Plazak agortu arte

4 izen emate pertsonako

Doan

Txurruka

SORALUZE

Txurruka Auzoa 11
943 75 15 81

Kalabaza-krema, ganba salteatuekin

Entsalada epela, letxuga, etxeko sagar-erre, intxaur eta euskal txerriaren hirugiharrarekin

Legatza txakolin-saltsarekin eta parrillan egindako baserriko porruarekin

Eusko label txahal-gisatua garagardo glasearekin eta patata eta ahuntz gazta moussea

Txokolate brownia urrekin, toffez bete